# IZEN EMATEAK OSTEGUNEAN IREKIKO DIRA!

**2024. urteko uztailaren 12, 13 eta 14**an ospatuko da ehunmilak proben **13. edizioa**.

Ostegun honetan, **azaroaren 9an, arratsaldeko 17:00etan irekiko da izen ematea.**

**Partehartzaile kopurua** proba bakoitzerako honakoak dira:
- ehunmilak Ultra-Trail® (171km) → 550 partaide (bai banaka zein taldeka).
- goierriko 2 haundiak trail (90km) → 550 partaide.
- marimurumendi marathon (42km) → 350 partaide.

**Izen emate prozesua ulertzeko bideoa:** https://www.youtube.com/watch?v=jvaSDNdHj2Y

**Izen emateak** irekitzear daude eta **prozesu** hau nola egin behar den jakinarazteko **argibideak** azalduko ditugu jarraian:

## ehunmilak Ultra-Trail®

- **2023eko azaroaren 9an arratsaldeko 17:00**etan irekiko da izena emateko epea eta izen emate prozesua ohikoa edo zuzena da.
- **Rockthesport**-eko webgunean egin behar da izen ematea (https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak_2024).
- **Bete** eskatutako **datuak eta ordainketa egin**. Jarraian izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena (https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak_2024/partehartzaile-zerrenda).
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dortsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/).

## goierriko 2 haundiak eta marimurumendi maratoia

- **2023eko azaroaren 9an arratsaldeko 17:00**etan irekiko da izena emateko epea. Izen ematea pausatuagoa da.
- Izen ematea probaren arabera webgune hauetako baten bidez egin:
    - **Rockthesport**-eko webgunean:
        - g2h  https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h_2024
        - mmm  https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm_2024
- Horretarako, **bete** eskatutako **datuak** eta ziurtatu izen-emate prozesua guztiz bukatu duzula ("**itxaron-zerrendan amaitu**" botoia **sakatuz**). Izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera**.
- Izen-emate ordenaren arabera **itxarote zerrenda bat osatu**ko da. **Izena emandako** korrikalari **guztiak** joango dira **itxarote zerrendara**.

- Korrikalariak izena ematen duen momentuan **ezagutuko** du itxarote zerrenda horretan duen **postua**. Horretarako, esteka honetan sartu beharko da:
    - g2h
      https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h_2024/partehartzaile-zerrenda
    - mmm
      https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm_2024/partehartzaile-zerrenda

- **2023ko azaroaren 9ko arratsaldeko 18:00etan** itxarote-zerrendan dauden **lehen 550 (g2h) eta 350 (mmm) korrikalariek** izango dute izena-emandakoen zerrendara pasatzeko aukera. Horretarako, korrikalariak aplikazioan jarri duen emailera, email bidez, mezu bat bidaliko zaio **ordainketa** egiteko jarraitu beharreko pausoak eta sartu beharreko esteka adieraziz.
- Korrikalariak **72 orduko epea** izango du **ordainketa egiteko**. Behin hori eginda, izena emandakoen zerrendara pasako da. Epe horretan izen-ematea formalizatu ezean, lasterketako plaza galduko da.
- **Ordainketa egin** ondoren izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena:
    - g2h
      https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h_2024/partehartzaile-zerrenda
    - mmm
      https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm_2024/partehartzaile-zerrenda
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dortsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/).
- Izena emandakoen zerrendan bajarik balego, itxarote-zerrendan dauden korrikalariei deituko zaie itxarote zerrendako ordenaren arabera.

-------

**Informazio gehiago: www.ehunmilak.com**

**Facebook**: https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h

**Twitter:** https://twitter.com/ehunmilakg2

**Instagram**: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

**Harremanetarako:** inskripzioak@ehunmilak.com / ehunmilakultratrail@gmail.com

**Traola ofiziala: #ehunmilak24**